

GIZARTEA ▶

Oiangu Bizirik taldea alkatearekin bildu eta «eztabaida zabaltzeko» eskatu dio

Atzoko plenoan proiektua bertan behera uzteko eskatu zuten plataformako kideek, eta euren desadostasuna agertu zuten

M. DEL OLMO

Oiangu Bizirik plataformako kideak Alejandra Iturrioz alkatearekin bildu ziren herenegun. Hiru eskaera eraman zituzten bilkurara. Batetik, herrian Oianguko egitasmoari buruzko eztabaida zabaltzeko eskatu zioten. Beste alde batetik, aurrekordioan jasotzen den Plan Berezia deitua onartzen ez den bitartean Oianguko parkean inolako lanik ez hasteko

eskatu zioten, eremurik ez ixteko ordura arte, eta aldaketarik ez egiteko. Hirugarren, otsailaren 28ko plenoko akta ez onartzeko eskatu du Oiangu Bizirik plataformak; hain zuzen, egitasmoaren aurrekordia onartu zuten azken osoko bilkura horretan.

Plataformak, bestalde, sinadurak biltzen segiko duela esan du. Sinatzeko aukera izango da hurrengo asteetan. Datorren asteazkenean, hilak

30, Artzain Egunean, mahaia jarriko dute plazan. Gaztaren nazioarteko kongresuak iraun bitartean sinatzeko aukera izango dela jakinarazti dute.

«Guztionea eta guztiontzat»

Edurne Huesa Oiangu Bizirik plataformako kidea da. Haren arabera, sortu berri den taldeak helburu bat du, batez ere: «Parke publikoa izateak ezinbestean eskatzen du modu li-



Oiangu Bizirik plataforma pasa den astean aurkeztu zuten. A. APALATEGI

brean disfrutatu ahal izateko doakoa izatea, hesirik gabea, guztionea eta guztiontzat; ez negozio itxi, elitista eta pribatua. Parke naturala izateak ezin-

bestean eskatzen du naturagune gisa zaintzea. Hori da, batik batik, nabarmendu nahi dugun ideia», esan du Edurne Huesak.

ERRUGBIA ▶

Madrilen jokatu du Aymak play off-eko lehenengo partida

Liceo Frances taldearekin neurtuko dituzte indarrak apirilaren 3ko norgehiagoan

MAIDER DEL OLMO

Lidertzan amaitu du Liga Ayma Ordiziak. Lehenengo itzulia eta bigarrena, biak aurreneko postuan bukatu ditu. Eta orain Ohorezko Mailara igotzeko play off-eko partidak jokatzeko tokatzen zaio. Erronka handia dute aurretik, baina ilusioz dago taldea. Lehenengo partida apirilaren 3an izango dute, Madrilen. Liceo frances taldearen kontra ariko dira. Itzulikoa, berriz, etxean izango da apirilaren 17an.

Axio Araña entrenatzaileak Madrilgo taldeari buruz esan duenez, «oso talde teknikoa da, urte asko ditu, eta joko askokoa da».

Partida gainean dute. Egun



Liga «oso ondo» joan dela esan du entrenatzaileak; igieran dute orain burua. AIMAR MAIZ

gutxi dituzte aurretik eta entrenamenduetarako denbora askorik ez dute. Oporrak daude tartean, gainera. Hori dela-eta, Arañak gogor egingo diela mutilei esan du: «Partida hauek oso garrantzitsuak dira gure taldearentzat. Azken batean, partida gutxitan erabakiko da zein pasako den goiko mailara. Mutilek oporrak dituzte orain,

ulertzekoa da. Baina zein ere garrantzitsuan gauden oharretza nahi dute».

Atzo lan saioa izan zuten Trevijano zelaian. Aste Santuko oporren aurretiko azken entrenamendua izan zen.

Ayma Ordiziako entrenatzaileak oso argi du zein den euren helburua: Ohorezko Mailara igotzea. Baina ez dira baka-

rrak: «Usap Barcelona talde handia da, eta geure helburu bera dute: igoera, alegia». Hain zuzen, talde katalanaren kontra galdu egin dute joan den asteburuan. Hein batean «konfiantza gehiegi izategatik» izan dela uste du.

Erantsi duenez, «askotan buuruak agintzen du. Hankak luzean izateko balio izan digu».



AXIO ARAÑA
ENTRENATZAILEA

«Usap Barcelona talde handia da, eta geure helburu bera dute: Ohorezko Mailara igotzea»

«Partida egun asko aurretik irabazten da, eta mutilei hori bizitzeko eskatzen diet, garrantzitsua da»

Liga kasik hutsik egin gabe irabazi dutela ere esan du. Eta balorazio «oso positiboa» egin duen arren faltan bota du Ligazehar lehiakortasun gogorragoa: «Uste baino errazago egin dugu aurrera, borrokatuagoa izan behar zuen ustean geunden. Hiruzpalau talde ibili gara hor lehenengo postuetan, baina talde batzuetatik bestera alde handia dago jokolari eta mailari dagokionez», azaldu du.

Aymako entrenatzailearen arabera, «partida egun asko aurretik irabazten da. Mutilei partida bizitzeko eskatzen diet. Oso garrantzitsua da guretzat, amets bat. Lan asko egin dugu honaino iristeko, ezin dugu hutsik egin», erantsi du.

